



KABLE BIDEZKO GARRAIOAREN LEGE-AURREPROIEKTUA IZAPIDETZEKO PROZEDURAREN MEMORIA LABURRA

Memoria hau Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikulua 2. atalean xedatutakoa aplikatuz egin da.

1. ARAU-EKIMENAREN AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA DESKRIBATZEA.

Arau-ekimenaren aurrekariak eta justifikazioa deskribatzea.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako hainbat instalazio estatuko lege-esparru baten pean egon dira, eta honako hauek osatzen dute esparru hori: Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legea, eta, zehatzago, Teleferikoen Emakidari buruzko apirilaren 29ko 4/1964 Legea eta martxoaren 10eko 673/1966 Dekretua. Azken dekretu horrek haren aplikazio-erregelamendua onartu zuen, baina gaur egun ez da nahikoa, garraio-sistema horrek azken urteetan izan dituen berrikuntza teknologikoak direla-eta. Berrikuntza horiek 2016ko martxoaren 9ko 2016/424 (EB) Erregelamenduan jaso dira, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoan, 2000/9/EE Zuzentaraua indargabetzen duen horretan.

Egoera horrek justifikatzen du Euskadin pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen eraikuntza eta ustiapena arautzen duen lege-mailako arau bat izatea, oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoan igarotzen diren kable bidezko garraioaren arloko eskumen eksklusiboa Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzearen babesean. Hori guztia bat dator Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluaekin eta hura gauzatzearekin, abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuaren 13. artikulua araber. Errege-dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Nagusiari eskualdatu zitzaizkion kable bidezko garraio-zerbitzu publiko zein pribatuak eman, baimendu, ustiatu eta ikuskatzeko eskumenak, apirilaren 29ko 4/1964 Legeak eta hura garatzeko xedapenek arautuak.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat instalazio-mota daude, konfigurazio juridikoari eta aplikatu beharreko araudi teknikoari dagokienez bereizten direnak. Alde batetik, funikularrak daude, zeinak, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen eta hura garatzeko erregelamenduen arabera, trenbideko garraioari buruzko araudiari atxikitzen baitzaizkio, nahiz eta trakzioari dagokionez kable bidezko garraioaren araudia aplikatzen zaien, zeina 2016ko martxoaren 9ko 2016/424 (EB) Erregelamendua osatzen baitu.



Bestalde, zerbitzu publikoko igogailu batzuk daude, emakida-araubidean ustiatzen direnak. Emakida hori joan den mendearen erdialdean eman zen, obra publikoei buruzko legeriaren arabera. Igogailuei buruzko otsailaren 26ko 2014/33/EB Zuzentarauak eta maiatzaren 20ko 203/2016 Errege Dekretuak osatzen dute haien araudi teknikoa. Indarrean dagoen araudiaren arabera, ez dira kable bidezko garraio-azpiegiturak, baina ustiapen-araubideari dagokionez, teleferikoen emakidari buruzko apirilaren 29ko 4/1964 Legea eta hura garatzeko xedapenak aplikatu zaizkie. Zerbitzu publikoko igogailu horiei erabilera publikoko beste igogailu batzuk gehitu behar zaizkie, udalek hiri-hausturako eremuetan instalatutakoak, erabiltzaileen irisgarritasuna errazteko, eta, era berean, lehen aipatutako igogailuen araudi teknikoari atxikita daude.

Igogailu horiek hiri-izaerako premiei erantzuten diete; beraz, beren udal-mugarteko mugikortasuna eta udalerrri horietan bizi diren pertsonen mugikortasun-beharrak ikuspegi integral batetik ezagutzen eta kudeatzen dituzten udalen erantzukizuna izan behar dute. Igogailu horiek ez ditu lege honek arautzen, Lehen Xedapen Gehigarrian jasotzen den berariazko aipamena izan ezik. Hala, aplikatu beharreko araudi teknikoaren irizpideari jarraitzen zaio, zeinaren arabera igogailuak ez baitira kable bidezko garraio-instalazioak.

XII. Legegintzaldiko (2020-2024) Legegintza-egutegiak, Gobernu Kontseiluaren 2020ko azaroaren 10eko Erabakiaren bidez onartutakoak, ez du berariaz jasotzen orain izapidetzen ari den kable bidezko garraioaren lege-proiektua, baina kontuan hartu da egokia dela kable bidezko garraioa lege-mailako arau bidez arautzea, mugikortasun jasangarriaren lege-proiektutik bereizita, lege-egutegi horretan sartuta baitago.

Proposatutako erregulazioaren edukia.

Lege-aurreproiektuak lau kapitulu ditu, kable bidezko garraio-instalazioei aplikatu beharreko araubidearen hainbat alderdi artikulatzen dituztenak.

I. kapituluak, xedapen orokorrei buruzkoak, honako hauek arautzen ditu: Legearen xedea, aplikazio-eremua eta helburuak; instalazioen sailkapena, ematen duten zerbitzuaren izaeraren eta lurralde-eremuaren arabera; eskumen-araubidea; instalazioek bete behar dituzten segurtasun-baldintzak; erregistroa; eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Aplikazio-eremuari dagokionez, lege honek arautzen dituen kable bidezko garraio-instalazioak zehaztu dira, bai egun daudenak (funikularrak), bai etorkizunean ezar daitezkeenak (teleferikoak, teleaulkiak, etab.), baita baztertzen diren instalazioak ere. Ildo horretatik, erreferentziatzat hartu da aipatutako 2016ko martxoaren 9ko 2016/424 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluan jasotako zerrenda, salbu eta ondare historiko edo kultural gisa sailkatutako instalazioak, erregelamenduaren 2. artikuluan 2.b atalean aipatzen direnak, ez baitira lege honen aplikazio-eremutik kanpo uzten. Igogailuei dagokienez, oro har lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen badira ere, emakida bidez ustiatu diren zerbitzu publikoko igogailuei buruzko aurreikuspen berezi bat egiten da. Igogailuak kokatuta dauden udalerriko udalen eskumenekoak izango dira, hiri-eremua dutelako eta hiri-irisgarritasuneko beharrei erantzuten dietelako.

Eskumen-araubideari dagokionez, EAeko Administrazio Orokorraren ahalmenak mugatzen dira, hari baitagokio legearen arau-garapena, plangintza orokorra eta koordinazioa, baita hiriarteko kable bidezko garraio-instalazioak eta berrogeita hamar mila biztanle edo gutxiagoko udalerrietan daudenak ezartzea, antolatzea, kudeatzea, ikuskatzea eta zigortzea ere.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak aipatzen dituen subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioei jarraikiz, berrogeita hamar mila biztanletik gorako udalei esleitzen zaizkie hiri-eremuko kable bidezko garraio-instalazioak ezarri, kudeatu, ikuskatu eta zehatzeko ahalmenak.

Legearen xede diren instalazioen baldintza teknikoei eta segurtasun-baldintzei dagokienez, sektoreko legeriara jotzen da berariaz. Ildo horretatik, 2016ko martxoaren 9ko 2016/424 (EB) Erregelamenduak (pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoa) eragiten die Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua EAeri esleitzen dizkion eskumen eskusiboei. Ildo horretatik, igogailuei buruzko araudi teknikoa eta segurtasuneko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/33/EB Zuzentarauan (igogailuen eta igogailuetarako segurtasun-osagaien arloko estatu kideen legeriak bateratzeari buruzkoa) eta igogailuetarako segurtasun-osagaiei buruzko maiatzaren 20ko 203/2016 Errege Dekretuan (igogailuetarako segurtasun-osagaiei eta igogailuak merkaturatzeko segurtasun-baldintza oinarriekoei aplikatzen zaizkie) jasota daude.

II. kapitulua instalazio eta ustiapenen administrazio-araubideari buruzkoa da, eta hiru sekzio ditu. 1. sekzioak zerbitzu publikoaren izaera duten garraio publikoko instalazioak arautzen ditu, eta instalazio horiek ezartzeko eta zerbitzuan jartzeko prozedura ezartzen du, aurretiazko proiektu bat onartzea eskatzen duena, baita ustiapen-araubidea ere. Kontratuaren araubide juridikoari dagokionez, sektore publikoko kontratazioa arautzen duen legerian xedatutakora jotzen du. 2. sekzioak, zerbitzu publikoaren izaera ez duten garraio publikoko instalazioei buruzkoak, horien ezarpena eta ustiapena arautzen ditu, eta alde zuzeneko administrazio-baimena lortu behar da horretarako. 3. sekzioak garraio pribatuko instalazioak arautzen ditu, eta aurreko sekzioan ezarritako prozedurari lotzen zaio, dagozkion aldaketekin. Horri dagokionez, adierazi behar da kable bidezko garraioari aplikatu beharreko legeria sektorialak mota horretako instalazioak aurretiko administrazio-baimen baten mende jartzen zituela; beraz, ez dela baimen berri bat.

III. kapitulua instalazioak ikuskatzeari eta kontrolatzeari buruzkoa da, eta legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera eskumena duten administrazio-organismoek gauzatuko duten ikuskapen-araubidea arautzen du. Horren arabera, instalazioetan arazko berrikuspenak eta probak egiten direla egiaztatzeko jarduerak egingo dira, instalazioen kontserbazioari eta mantentze-lanei dagokienez, eta ustiapen- eta zerbitzu-baldintzak kontrolatuko dira.

IV. kapitulua zehapen-araubideari buruzkoa da, eta legearen arau-haustekak, horien tipifikazioa, erantzukizunaren eskakizuna zehazteko administrazio-prozedura eta, hala badagokio, ezar daitezkeen zehapenak jasotzen ditu, eta zehapen-prozedurari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahala arautzen duen legerian xedatutakora jotzen du. Arau-hausteen tipifikazioari eta zehapenen zenbatekoari dagokienez, gai horretan dauden beste lege batzuen irizpideari jarraitu zaio.

Azkenik, xedapen arauemailearen azken zatian bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor eta bi azken xedapen jasotzen dira.

Horien artean, Lehen Xedapen Gehigarria azpimarra dezakegu, gaur egun zerbitzu publikoko eta hiri-eremuko igogailuei buruzkoa, orain arte administrazio-emakida bidez ustiatu direnak. Aipatutako xedapen gehigarriak igogailu horiek kokatuta dauden udalerriko udalen subrogazioa ezartzen du EAeko Administrazio Orokorrak erakunde emaile gisa duen posizioan. Hori gertatzen da ematen duten zerbitzua erabat hirikoa delako. Arangoiti, Begoña eta Solokoetxeko igogailuei eragiten die (Bilbao).

Irizpide hori jasotzen da, halaber, Bigarren Xedapen Gehigarrian, gaur egun zerbitzu publikoko funikularrak direnetan, 50.000 biztanletik gorako udalerrietan kokatuak eta administrazio-emakidaren bidez ustiatu izan direnak. Xedapen gehigarri horrek udalen subrogazioa ezartzen du EAeko Administrazio Orokorrak erakunde emaile gisa duen posizioan, eta emakida horiek lege honetan ezarritako araubide juridikoaren mende geratzen dira. Donostiako Igeldoko Funikularrari eta Bilboko Artxandako Funikularrari eragiten die.

Oinarriak eta bideragarritasun juridiko eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena

Lege-aurreproiektua juridikoki eta materialki bideragarria da; izan ere, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du, besteak beste, lurreko garraioen, trenbideen eta garraibide horien arloan, baita kable bidezko garraioaren arloan ere. Transferentzia horiek abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaren eta ekainaren 19ko 1446/1981 Errege Dekretuaren bidez gauzatu ziren.

Eskumen organikoa:

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 11.1.i) artikuluan Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioaren arloko egitekoak eta jardun-arloak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren barruan, eta sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuan xedatutakoarekin bat, Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzari dagokio lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioen jarduera-eremua zuzendu eta koordinatzea (14.1.c artikulua), eta, horretarako, xedapen orokorren proiektuak sustatu ahal izango ditu (7.d artikulua), eta haren eskumenen barruan, hau da, Garraioaren Zuzendaritzaren arloko proiektuak (8.b artikulua).

Eskumen funtzionala.

Bestalde, urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 4.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak erabiltzea, baita Sailari esleitutako egiteko eta jardun-arloen esparruan indarreko legeriak esleitzen dizkionak ere. Zehazki, lehen aipatutako artikulua (26.8 artikulua) ahalmena ematen dio bere eskumenerako gaiei buruzko lege-proiektuak proposatzeko Jaurlaritzari, onar ditzan.

Arestian adierazi den bezala, eta Sailaren barruan, ekimena Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzaren titularrari esleitu behar zaio. Horren mende dago Garraio Plangintzaren Zuzendaritza (14.4 artikulua). Horregatik, Zuzendaritza horren eskumena da arau-testuaren proiektua egitea.

Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Gaur egun, kable bidezko garraioa araudi sektorial honek arautzen du: Europan, 2016/424 (EB) Erregelamendua, 2016ko martxoaren 9koa, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoa eta 2000/9/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; Estatuan, 16/1987 Legea, uztailearen 30ekoa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoa, eta, zehatzago, 4/1964 Legea, apirilaren 29koa, teleferikoen emakidari buruzkoa, eta 673/1966 Dekretua, martxoaren 10ekoa, haren aplikazio-araudia onartu zuena.

Bestalde, igogailuen araudi teknikoa eta segurtasunekoa, arau-testuaren Lehen Xedapen Gehigarriak aipatzen duena, honako hauetan jasota dago: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/33/EB Errege Dekretua, igogailuen eta igogailuetarako segurtasun-osagaien arloan estatu kideen legediak harmonizatzeari buruzkoa; 203/2016 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, igogailuak eta igogailuetarako segurtasun-osagaiak merkaturatzeko funtsezko segurtasun-betekizunak ezartzen dituen; eta, autonomia-erkidegoan, 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuak mantentzeko eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzen duena (ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuak aldatua).

Lege-aurreproiektu hau Euskal Autonomia Erkidegoak kable bidezko garraioari buruz duen eskumen eksklusiboa baliatuz izapidetzen da (eskumen hori Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan jasota dago), eta bere lurralde-eremuan oso-osorik igarotzen diren kable bidezko garraio-zerbitzuen araubide juridikoa eta eskumen-araubidea ezartzen ditu.

Ekonomian eta aurrekontuetan izango duen eragina.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion memoria ekonomikoa egin da. Bertan, etorkizuneko arauaren aplikaziotik eratorritako kostua eta haren aplikazioak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina aztertu dira. Halaber, memoria horretan, arauak beste administrazio batzuetan eta partikularretan duen eragina aztertzen da, baita ekonomian oro har duena ere. Nabarmendu behar dugu memoria horren lehen eta bigarren xedapen iragankorrei buruzko aipamenak Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren ondoren idatzitako arau-testuaren lehen eta bigarren xedapen gehigarriei buruzkoak direla.

2. XEDAPEN OROKORRAREN PROIEKTUA IZAPIDETZEA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezarritako *iter* prozesalari jarraitu zaio xedapen orokorraren proiektua izapidetzeko.

Horretarako, Kable bidezko Garraioaren Lege Aurreproiektuaren izapideak honako hauek izan dira:

1. Aldez aurreko kontsulta publikoaren agindua, 2020/12/18an sinatua
2. Hasiera emateko agindua, 2021eko otsailaren 5ean sinatua.
3. Lege-aurreproiektuaren proposamena eta justifikazio-memoria teknikoa, memoria ekonomikoa eta genero-eraginari buruzko aurretiazko txostena idaztea.
4. Aldez aurreko onespren-agindua, 2021/04/08an sinatua.
5. Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoa, 2021eko apirilaren 23koa.
6. Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea, I. fasean, lege-aurreproiektuaren testua eta aldez aurreko onespren-agindua, Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 56.1 artikulua aplikatuz.
7. Eusko Jaurlaritzako gainerako sailekin batera ezagutzea Legesarearen bidez, oharririk egin gabe.
8. Jendaurreko informazioaren izapidea, 2021-04-26ko ebazpena (2021-05-11ko EHAA).
9. Erakunde hauei entzuteko izapidea (2021/05/11):
 - Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa – Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusia.
 - EUDEL – Euskadiko Udalen Elkarte.
 - Bizkaiko Garraio Partzuergoa
 - Euskal Trenbide Sarea (ETS)
 - Euskotren.
 - Kontsumobide.
 - Bilboko eta Donostiako Udalak.
10. Beste sail batzuei entzuteko izapidea (2021/05/11):
 - Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
11. Nahitaezko txostenak eskatzea:
 - Hizkuntza-normalizazioa, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikuluekin lotuta.
 - Emakunde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19.etik 22.era bitarteko artikulua aplikatuz.
 - Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordea, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 36. artikulua.

- Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).1 artikulua.
- 12. Emakunderen txostena, 2021/05/20koa.
- 13. Txostena, Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena, 2021/05/17koa.
- 14. Kontsumoko Aholku Batzordearen txostena, 2021/06/17koa.
- 15. Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, 2021/05/26koa
- 16. Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidean jasotako alegazioak.
- 17. 4/21 Irizpena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena, 2021/07/30ekoa.
- 18. Txostena, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearena, 2021/07/29koa.
- 19. EJ-Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen 2021eko irailaren 28ko bilera.
- 20. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, 2021eko azaroaren 2koa.
- 21. Lege-aurreproiektuaren dokumentazioa Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea, II. fasean, Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legearen 56.2 artikulua aplikatuz.
- 22. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, 2021/12/22koa

3. JASOTAKO NAHITAEZKO TXOSTENEN LABURPENA.

3.1. Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoa.

Lege-aurreproiektuaren izapidetzeari dagokionez, baita eskumen-alderdiei eta arau-esparruari dagokienez ere, ondorioztatzen da izapidetzean errespetatu egin direla abenduaren 22ko 8/2003 Legean, ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoa, kontuan hartu direla beste araudi batzuk, eta inplikaturako administrazioen eskumenak errespetatzen dituztela.

Artikuluen azterketari dagokionez, honako ohar hauek egin dira, labur-labur:

7. artikulua. Aurreproiektu honen xede diren garraiobideak ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruaren Erregelamenduaren eremu materialean sartuta ez daudenez, aurreproiektuaren 7.7 artikulua abenduaren 22ko 1575/1989 Errege Dekretuan aurreikusitako bidaiarientzako derrigorrezko aseguruari dagokio.

Eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2012ko otsailaren 8ko 22/2012 Irizpenean, gorago deskribatutako aseguruaren balizko konkurrentzia agerian utzi ondoren, honako hau dio: *"106. Bi aseguruaren beharra ere eztabaidagai da. Beraz, gomendatzen da proiektuak indarreko legedira jotzea, bidaiarien garraio-zerbitzuak ematen dituenak kontratatu behar dituen aseguruari dagokienez, besterik gabe.*

Erantzuna: proposamena onartu da eta 7.7 artikulua idazketa aldatu da, bidaiarientzako derrigorrezko aseguru eta erakunde ustiatzailea ituntzera behartuta dagoen beste edozein aseguru soilik aipatuz.

19.3. artikulua.- Aurreproiektuaren 19.3 artikulua nahasi samarra da. Kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntzari eta ustiapenari buruzko kontratuak amaitzeko arrazoiei egiten die erreferentzia, eta horien artean sartzen da hasieran aurreikusitako epea amaitzea edo, hala badagokio, adostutako luzapenaren ondoriozkoa (betetzea), baita kontratua suntsiaraztea ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera.

Hala ere, Lege horren 38. artikulua arabera, baliogabetasun-kasu horiek ez dute kasu guztietan kontratuak azkentzea ekarriko; beraz, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriara igortzen duen idazketa bat iradokitzen da, honako termino hauetan edo antzekoetan: *"kable bidezko garraio-instalazioen eraikuntzari eta ustiapenari buruzko kontratuak azkentzeko arrazoiak izango dira, sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian ezarritako kasuez gain, hasieran ezarritako epea amaitzea edo, hala badagokio, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera adostutako luzapenaren emaitza, edo kontratua suntsiaraztea"*.

Erantzuna: onartu egin da eta 19.3 artikulua idazketa aldatu egin da, proposatutako ildotik.

Enpresetan izango duen eraginari buruzko txostenari dagokionez, esan daiteke proiektatutako arauan ezarritako izaera pribatuko pertsona fisikoek edo juridikoek instalazioak ezartzeko eta ustiatzeko prozedurek instalazioak eraikitzeko eta ustiatzeko prozesuan parte hartzen duten eragile pribatuentzako eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituztela, baina hori sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriarekin bat egiten du, eta *ex novo* ezarri gabe 4/1987 Legearen 194. artikuluan edo Garraioen Antolamenduari buruzko 3/1987 Legean aurreikusita ez dauden administrazio-baimenak edo bestelako administrazio-kargak. Beraz, arauak ez du enpresa-askatasuna mugatzen eta baldintzatzen, eta ez du karga gehigarririk ezartzen enpresa-askatasuna eratzeko, abian jartzeko edo funtzionatzeko.

Legegintza-teknikako gaiei dagokienez, Gobernu Kontseiluak 1993-03-23an onartutako gidalerroak errespetatzen direla ondorioztatu da, eta zenbait alderdi zuzentzeko gomendioa egin da. Era berean, adierazi du aurreproiektuak behar bezala erabiltzen duela hizkuntza ez-sexista.

Erantzuna: planteatutako legegintza-teknikako gaiak zuzendu dira.

Azkenik, **eta ondorengo izapidetzeari** dagokionez, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko Legearen (ETEL) 90. artikuluan ezarritakoaren esparruan eskatu beharko dela azpimarratu du.

3.2. Hizkuntza-normalizazioari buruzko txostena.

Adierazten du bete egin dela 233/2012 Dekretuaren 4. artikuluan eta 8/2003 Legearen 7. artikuluan ezarritakoa, lege-aurreproiektua euskaraz eta gaztelaniaz izapidetzeari buruzkoa.

Era berean, euskararen erabileran duen eraginari dagokionez, aurreproiektuaren 10. artikulua, erabiltzaileen eskubideei buruzkoak, uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuan ezarritako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak jaso beharko lituzke, eta zehatzago, 5. artikuluan honako atal hauetan jasotakoak: c) enpresak argitaratutako inprimakiak eta katalogoak; d) betetzeko inprimakiak; e) atxikipen-kontratuak eta kontratu arautuak; eta, f) komunikazioak edo jakinarazpenak eta fakturak.

Erantzuna: onartu egin da eta 10.6 artikulua aldatu da.

3.3. Emakunderen txostena.

4/2005 Legean eta Generoaren arabera Eraginaren Txostena egiteko Jarraibideetan aurreikusitako izapide formalak bete direla egiaztatu ondoren, edukiari dagokionez, ezarritako atal eta galdetegi guztiak betetzeko egindako ahaleginaren balorazio positiboa egiten da.

Lege-aurreproiektuaren edukiari dagokionez, hobetzeko proposamen hauek egin dira:

Kontuan hartuta arauak xedatzen duen esparruari buruzko datuen eskuragarritasun urria, sexuaren arabera bereizitako kable bidezko garraioaren mugikortasuna, eta arauan genero-ikuspegia eraginkortasunez txertatzen dela bermatzeko, 4/2005 Legearen 16. artikulua arabera, gomendatzen da estatistika-jarduerak egitea eta berariazko azterlanak egitea, arauaren esku-hartze eremuan emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian desberdinak ezagutu ahal izateko.

Bestalde, garraioaren estatistiketan zaintzaren mugikortasuna izeneko kontzeptu berri bat sartzea gomendatzen da, Inés Sánchez de Madariagak sortua. Kontzeptu honek kategoria berri bat definitzen du garraioaren inkestetarako, hiri-mugikortasunean generoaren dimentsioa kontuan hartzen duena.

Amaitzeko, gogorarazi nahi dugu, 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, botere publiko guztiei eta botere publikoekin kontratuak, hitzarmenak edo laguntzak sinatzen dituzten erakunde pribatuei aplikatzen zaizkiela 3., 16., 18.4 eta 23. artikulua; beraz, sexuaren arabera bereizitako datuak izan behar dituztela, hizkera ez-sexista erabili behar dutela, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatu behar dutela erabakiak hartzeko esparru guztietan eta legearen 3. artikuluan eta haren zuzendaritza-organoetan.

Erantzuna: ez da egokitzen jotzen aurreproiektuaren testuan bereziki aipatzea aipatutako 4/2005 Legean ezarritako konpromiso espezifikoak, estatistikei, azterlan espezifikoari eta aipatutako kontratu, hitzarmen eta laguntzei buruzkoak, lege hori zeharkakoa baita.

3.4. Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena.

Amaitzeko, ondorioztatzen du lege-aurreproiektuaren edukiak, sektore publikoko kontratazioari buruzko alderdiei dagokienez, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeria betetzen duela, oro har, haren mende jartzeko formula erabiltzen duelako. Hori guztia esanda, eta txostenean jasotako zehaztapenak eta oharra kontuan hartuko direlakoan, kable bidezko garraioaren legearen aurreproiektuaren aldeko txostena egin da.

Horri dagokionez, honako zehaztapen eta ohar hauek egiten dira artikuluei buruz:

19. artikulua 5. atala, zerbitzua eteteko kasuei edo etete hori gertatzeko berehalako arriskuari buruzkoa, kentzea egokia eta komenigarria dela planteatu da, oso nahasia delako eta, nolana ere, baldintza-agirietan eta kontratuei buruzko legerian oinarritu behar delako.

Erantzuna: onartu egin da eta kendu egin da 19. artikuluko 5. atala.

Bigarren eta Hirugarren Xedapen Iragankorrei dagokienez, honako hau proposatzen da: "Eusko Jaurlaritza" aipatu ordez, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa" aipatzea.

Erantzuna: onartu egin da Eusko Jaurlaritzari buruzko aipamena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari buruzkoa jarri da lege-aurreproiektuaren testu osoan.

Memoria ekonomikoaren arabera, Bigarren Xedapen Iragankorrek eragiten dien instalazioen artean, batzuk indarrean daude, eta beste batzuk iraungita daude. Beraz, Batzorde honen Osoko Bilkuraren 11/2019 txostenean adierazitakoa errepikatzen da, hau da, indarrean dauden emakidei dagokienez, administrazio kontratatzailearen posizio juridikoan subrogatzeko orduan, hala badagokio, emakida formalizatzeko dokumentazioan ezarritakoa kontuan hartu beharko dela. Era berean, 11/2019 txosten horretan adierazitakoa errepikatzen da: kasu guztietan, subrogazio-akordioak izapidetzean, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean jasotako erregulazioa errespetatu beharko dela.

Erantzuna: azalpen-alegazioa.

Gai formal bat egin da aurreproiektuaren 16. eta 18. artikuluetako tituluei buruz, ez baitatoz bat aurkibidean ageri direnak eta aurkibidearen xedapen-zatian ageri direnak.

Erantzuna: planteatutako gai formala zuzendu da eta 16 eta 18, aurkibidean agertzen direnak.

3.5. Kontsumoko Aholku Batzordearen txostena

Adierazi duenez, kideek alegaziorik aurkeztu ez dutenez, Batzorde honek aldeko txostena ematea erabaki zuen.

4. ENTZUNALDIAREN, JENDAURREKO INFORMAZIOAREN ETA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI KONTSULTA EGITEAREN IZAPIDEAK.

Kable bidezko garraioaren lege-aurreproiektuari nahitaezko izapide hauek egin zaizkio: **aldez aurreko kontsulta, entzunaldia, jendaurreko informazioa eta beste administrazio batzuei kontsulta egitea**, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Arau-testuaren zirriborroa egin aurretik, honako hauei buruzko informazioa helarazi zitzaizen herritarrei: a) ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak; b) hura onartzeko beharra eta egokitasuna; c) arauaren helburuak; eta d) izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak, eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarritako **aurretiatzko kontsultaren** bitartez iritzia ematera gonbidatu ziren. Kontsulta hori 2020ko abenduaren 18an hasi zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan jarritako iragarkiaren bidez iragarri zen.

Ondoren, **informazio publikoaren izapidea** egin zen herritarrentzat oro har, 2021eko maiatzaren 11ko EHAA iragarrita.

Era berean, aurreikusitako erregulazioak zuzenean eragin liezaiekeen hainbat erakundek eta administrazioek ere parte hartu dute.

Horrela, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako **beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsulta** egiteko izapidea bete duten administrazio publikoak honako hauek izan dira: Estatuko Administrazioa, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioaren bitartez, eta Bilboko eta Donostiako udalak.

Halaber, **entzunaldia eskaini zaie honako erakunde hauei**: Bizkaiko Garraio Partzuergoa; Euskal Trenbide Sarea; Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos; EUDEL eta, Kontsumobide.

Erregulazioak bere eskumen-eremuan duen eragina kontuan hartuta, arau-ekimena EAeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren esku jarri zen, xedapen orokorrak telematikoki izapidetzeko tresnaren bidez (Tramitagune), azter zezaten eta, hala badagokio, ekarpenak egin zitzaten.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapide horien ondorioz, honako interesdun hauen alegazioen, oharren eta hobekuntza-proposamenen idazkiak jaso dira:

- Monte Igueldo, SA
- Bilboko Udala

Alegazio eta proposamen horiek jarraian laburbiltzen dira, baietsiak izan diren ala ez adieraziz, eta, hala bada, lege-aurreproiektuaren hasierako testua aldatuko da.

- **Monte Igueldo, SAren alegazioak**

Proposatu du Xedapen Gehigarri bat sartzea, kultura-interesekotzat jotako funikular historikoen irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzak erregelamendu bidez garatzeko.

Erantzuna: ez da onartu. Testuan jasota dago jada aplikatu beharreko araudira jotzen dela.

Era berean, beste Xedapen Gehigarri bat sartzea proposatzen du, lege hau indarrean sartu ondoren eta horren arabera egungo sailkapena aldatzen zaien kable bidezko garraiobideak birsailkatzeko prozedura gaitzen duena. Euskadiko Ondareari buruzko Legearen arabera, badira aukerak. Horretarako, 4.1.b artikulua zerbitzu pribatuaren sailkapena partekatzen dute, kultura-intereseko ondasun deklaraturako aisialdi-multzoaren beste elementu bat baita.

Erantzuna: ez da onartu. Arau-testu honetan jasotako definizioek ez dute aldatzen dauden instalazioen egungo sailkapena; izan ere, ordenamendu juridikoan jada jasota dauden definizioak dira, eta testuak ez du horietan berrikuntzarik egiten.

- **Bilboko Udalaren alegazioak**

Adierazi ondoren Bilbon badirela emakida-araubideko igogailuak, horien titulartasuna Eusko Jaurlaritzari dagokiola eta Begoñako igogailuaren emakidaren ondoriozko auzigaiak ere badaudela eta horiek “*subiudice*” jarraitzen dutela, Bilboko Udalak eta Sociedad Funicular de Artxanda, SAk (igogailu publikoak kudeatzeaz arduratzen da), adierazi dute ezin dutela, besterik gabe, igogailuen titulartasuna hartu alde aurreko negoziazio-fase bat ireki gabe; beraz, ezin dela transferentzia bat egin.

Horregatik, berariaz proposatu du Bigarren Xedapen Iragankorra indarrean jartzea eta eraginkorra izatea atzeratuko dela, harik eta Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren artean tresna juridiko bat (hitzarmena) sinatu arte, subrogazioaren baldintza guztiak jasoko dituen, honako gai hauei dagokienez: “*subiudice*” gaiak, azpiegituren eta instalazioen egoera, eskualdaketaren eraginkorrerako baldintza ekonomikoak, eta abar.

Erantzuna: ez da onartu. Xedapen orokor honek subrogazioa gaitzeko behar adinako indar juridikoa du, baina horrek ez du eragozten administrazioen arteko borondatezko hitzarmen bat egitea, subrogazioaren ondorioak hitzarmen horri lotu gabe.

- **Arau-testuaren beste aldaketa batzuk:**

15.1 artikulua.- Zerbitzu publikoko instalazioen funtsezko aldaketei buruzko aipamena kendu egiten da, funtsezko aldaketa orok jendaurreko informazioaren izapidea bete behar ez dezan.

20.4 artikulua.- Zerbitzu publikokotzat jotzen ez diren instalazioei dagokienez, zehazten da, “*hala badagokio*”, proiektuak jendaurreko informazioaren izapidea bete behar duela, instalazio berria jartzeko edozein eskabidek nahitaez ekar ez dezan jendaurreko informazioaren izapidea.

5. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN IRIZPENA.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 2021eko uztailaren 30eko 4/21 Irizpenean, **ondorioztatzen du** baloratu egin behar dela kable bidezko garraioa arautzeko arau espezifiko bat egokia den ala ez, ondoren laburbiltzen diren gogoeten arabera:

Ohar orokorrak:

Horrekin bat, kable bidezko garraioaren legegintza-aurreproiektuaren beharra eta aukera azaltzen duten elementuak emateko ahalegin handiagoa egitea aurreproiektua hobetzeko lehentasunezko arloa da, eta oinarri irmoago eta sendoagoetan ezartzen lagunduko du. Ahalegin hori bi norabidetan egin beharko litzateke:

- Lege-mailako erregulazioa beharrezko egiten duten arrazoien identifikazioa, kontuan hartuta erregulazioaren benetako esparru materiala 4 funikularrek soilik osatzen dutela, jada badagoela gaia arautzen duen estatu-mailako araudi bat eta Europar Batasuneko lurralde osoan zuzenean aplikatzekoa den arau bat, eta ez dela zehaztu berrikuntza teknologikoek egungo araudian duten eraginaren irismena.
- Behar den erregulazioa, hala badagokio, arau globalago baten parte ez izateko arrazoia azaltzea, hala nola Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legea, gaur egun izapidetze-egoera aurreratuan dagoena eta Batzorde horri nahitaezko txostena egiteko aurkeztu zaiona. Horrek, era berean, legeen ugaritasuna saihesten eta lotutako gaietan eragiteko arauak hobeto antolatzen lagunduko luke.

Erantzuna: lehenengo gaiari dagokionez, lege-aurreproiektu honek garatzen du Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua araberan, kable bidezko garraioaren arloan duen eskumen eskusiboa, eta helburutzat du pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen eraikuntza eta ustiapena arautzea, bai egun daudenena, bai etorkizunean ezar daitezkeenena. Bestalde, nabarmendu nahi dugu aipatutako lege-aurreproiektuak eskumen-araubidea arautzen duela, besteak beste, baita zehapen-araubidea ere, arau-hausteak eta zehapenak tipifikatuta, eta alderdi horiek, nolana ere, lege-mailako arau bat behar dute.

Bigarren gaiari dagokionez, bidezkotzat jo da kable bidezko garraioa mugikortasun jasangarriaren erregulaziotik bereizita arautzea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 2019ko azaroaren 19ko 188/2019 Irizpenean adierazitakoari jarraikiz. Irizpen hori mugikortasun jasangarriaren legearen aurreko aurreproiektuaren harira eman zen, eta kable bidezko garraioari buruzko kapitulu bat jasotzen zuen. Kapitulu horretan honako hau adierazten zen: “194. ... proiektatutako bi gai horiek ez daude argi eta garbi bereizita, nahiz eta bi izenburutan jasota egon. Nolanahi ere, egindako arau-ikuspegia garraioaren esparrutik egiten bada ere, deigarria da testu honetan garraioaren mota espezifikoa eta berezi bat sartzea. 195. Sartze hori koherentea izan zitekeen, baldin eta lehen aipatutako eskumen eskusiboaren ondoriozko erregulazioak lurreko garraio osoa barne hartuko balu. Hala ere, mugikortasun jasangarriari buruzko lege batean garraio-modalitate bakarra sartzea elementu behartua da, eta ez du arrazoizko justifikaziorik”.

Ohar espezifikoa:

Lege-aurreproiektuaren xedapen-zatiari dagokionez, bi aurreikuspen argitu behar dira, behar bezala ulertu ahal izateko.

10.3 artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

10.3 artikulua adierazten du zerbitzua ematearekin lotutako erabiltzaileen eta erakunde ustiatzailearen arteko eztabaidak dagokion Garraioko Arbitraje Batzordearen eraginpean jarri behar direla.

Komeniko litzateke aurreikuspen horren norainokoa argitzea, baita gatazkak Garraioko Arbitraje Batzordearen esku jartzeko betebeharrak hori hala den ala ez argitzea ere, ezbehar edo istripuren bat gertatuz gero dagokion erreklamazioa jurisdikzio eskudunaren aurrean aurkezteko aukera gorabehera. Hau da, gai oro Arbitraje Batzordeak ebatzi behar duen ala ez. Esate baterako, eragindako kalte-galeren ordaina eskatzeko aukera aipatzen du 34.5 artikulua, zehapenak ezartzetik aske dagoela adierazteko.

Erantzuna: ez da egokitzat jotzen testu arauemaileari zehaztasun gehiago gehitzea, Garraioko Arbitraje Batzordeak xehetasunez arautzen baititu Estatuko araudiak, hau da, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legeak (37. eta 38. artikulua) eta haren garapen-araudia onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuak (6.etik 12.era) osatutakoak; eta horri lotzen gatzazkio.

Araudi horrek batzorde horien eskumena, antolaketa, eginkizunak eta prozedura arautzen ditu, eta ezartzen du haiei dagokiela, arbitrajeari buruzko legeria orokorrean aurreikusitako ondorioekin, lurreko garraio-kontratuak betetzearekin lotuta sortzen diren merkataritza-eztabaidak ebatzea, baldin eta, bi alderdiak ados jarrita, esku hartzen duten alderdiek edo horiek betetzeko interes legitimoa duten beste pertsona batzuek horien berri badute. Joko da batzen arbitrajearen mende jartzeko akordio hori dagoela, betiere eztabaidaren zenbatekoa 15.000 € baino handiagoa ez bada eta kontratuan parte hartzen duten alderdietako batek ere ez badio besteari berariaz adierazi kontra egiteko borondatea kontratatutako garraioa edo jarduera hasi baino lehen edo hasi behar zen uanean.

28. artikulua. Erantzukizuna.

28. artikulua b) idatz-zatian zehazten den arau-hausteengatiko administrazio-erantzukizunari dagokionez, aurreikusten da administrazio-erantzukizuna instalazioaren jabe edo errentari den pertsona fisiko edo juridikoari edo garraio-zerbitzuaren arduradunari egokituko zaiola nahitaezko administrazio-titulu gaitzailearen estaldurarik gabe egindako garraio edo jardueretan egindako arau-hausteetan.

Egokitzat jotzen dugu formulazio horretan argitzea ea jabeak, instalazioaren errentariak edo, hala badagokio, zerbitzua emateko arduradunak solidarioki erantzuten duen, edo, kasu bakoitzean, horien barruan zehaztu beharko den erreklamazioa noren aurka egingo den. Horrek, jakina, ez die kalterik egingo xedapen honetan erantzule gisa adierazitakoek beren erantzukizuna eragin zuten arau-haustek materialki egotzi ahal zaizkien pertsonen aurka egin ditzaketan ekintzei.

Erantzuna: ez da egokitzat jotzen arau-testuari zehaztasun handiagoa ematea, administrazio-erantzukizunari dagokionez kontuan hartu baitira EAEko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa eta Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legean xedatutakoa (138. art.).

6. EUSKADIKO TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEAREN TXOSTENA.

Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak, 2021eko uztailaren 22ko txostenean, honako hau **adierazi zuen:**

“Lehenengoa.- Kable bidezko garraioaren Legearen aurreproiektuak toki-erakundeen toki-autonomia eta finantza-nahikotasunaren printzipioa murriztea edo urratzea ekar dezaketean aurreikuspenak jasotzen ditu, eta, aldi berean, eskumen propioak eta, batez ere, betebeharrak esleitzen dizkie udalei, eremu material bakoitzean dagozkien ahalmenak edo ahalak behar bezala esleitu gabe. Hori dela eta, Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera, aurreproiektua zuzendu egin beharko da dokumentu honen V. atalean adierazitako moduan, eta, gainera, eranskin espezifiko bat gehitu beharko zaio, aipatutako finantza-nahikotasuna ziurtatzeko behar diren baliabideen hornidurari buruzkoa.

Bigarrena.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 2. eta 3. ataletan aurreikusitako ondorioetarako, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, legegintza-ekimenaren sustatzailea baita, eskatzea txosten honen edukia ikusita osorik onar ditzala bertan jasotzen diren aldaketak eta proposamenak, edo, bestela, artikulua horretan aurreikusitako aldebiko batzorderako deialdia egin dezala, garraio-aurreproiektuaren inguruan dagokion akordioa lortzeko.”

Aurreproiektuaren artikuluei buruzko gogoetak:

Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txosten horren V. atalean birplanteatu beharreko zenbait gai jasotzen dira, jarraian laburbiltzen direnak:

V.1. Zioen azalpena:

Egokitzat jotzen da 5. artikuluan egiten den eskumen-esleipenaren zioen azalpenean 50.000 biztanletik gorako udalerriei justifikazio eta garapen handiagoa ematea, eta arrazoitu egin behar da zergatik esleitzen zaien eskumena biztanle gehiagoko udalerriei.

Emakida-araubidean ustiatutako zerbitzu publikoko igogailuei dagokienez, egokitzat jotzen da subrogazioa gehiago justifikatzea, eta berariaz adieraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek bere gain hartuko dituela, erakunde lagatzaile gisa, harpidetutako betebeharrak, baita emakidak dakartzan erantzukizunak ere, baldin eta ondorio ekonomikoak ekar badiezazkieke erakunde emaile gisa subrogatzen diren udalei.

Erantzuna: ez da onartu. Alde batetik, zioen azalpenak behar bezala jasotzen du zer eduki izan behar duen 1993ko martxoaren 23an Gobernu Kontseiluak onartutako jarraibideen arabera, hau da, zer arrazoik eragin duten arau-testua egitea, zer helburu lortu nahi diren, zer oinarri juridikok gaitzen duten, erregulazioaren printzipio eta ildo orokorrak, eta zer eragin duen indarrean dagoen araudian.

